



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
Carmelo Ayoroa Hualde
Pedro José Alchu Ariztegui

2014ko abuztuaren 28an, 19:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. J.R.B.M.k lizentzia eskatu zuen, *Eskinea* etxea erreteiltzeko eta sukaldeko baldosak aldatzeko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea B. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 3.412 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 102,36 euro.

2. I.B.M.k lizentzia eskatu zuen, *Altxunekoborda* (2 poligonoko 133 partzela) erreteiltzeko, balkoia konpontzeko, ingurua txukuntzeko eta sarrera-bidean zaborra botatzeko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea B. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen; aurrekontua idatzia edo faktura aurkeztu beharko du Udaletxean, zerga hori likidatu ahal izateko.

3. R.E.O.k lizentzia eskatu zuen, *Ariztegienea* etxearen ondoan daukan eguertegiari teila jartzeko teilatuan. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea E. andreari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen; aurrekontua idatzia edo faktura aurkeztu beharko du Udaletxean, zerga hori likidatu ahal izateko.

4. E.B.E.k idatzia aurkeztu zuen, *Domingeanean* egindako obra hauek legeztatzea eskatuz: terrazako baldosak aldatu eta garajearen porlana bota. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea B. jaunari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu behar du. Obraren faktura 2.587,80 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 77,63 euro.

5. M.T.A.A.k bereizketa lizentzia eskatu zuen, 14,52 metro karratu bereizteko 3 poligonoko 57 partzelatik, aldamenen dagoen 78 partzelari elkartzeko. Lursailaren neurketa aurkeztu zuen eskaerarekin batera. Ekintzak lizentzia behar du, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen arabera. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da bereizketa lizentzia ematea A. andreari.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

Carmelo Ayoroa sartu da.

3. LIZENTZIA DEUSESTZAT JOTZEKO PROZEDURA.

2014ko ekainaren 25eko Osoko Bilkuran erabaki zen, *Apeztegia* etxeko bigarren solairuan 2 balkoi eraikitzeke emandako lizentzia deusestzat jotzeko prozedurari hasiera ematea, legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz eman zelako (Kultur Zuzendaritza Nagusiko txostena nahitaezkoa eta loteslea da; lizentzia txostenarik gabe eman zen eta geroago emandako txostena, obraren kontrakoa izan zen) eta erabakiaren berri ematea interesdunei.

J.J.E.V.k alegazioa aurkeztu zuen lizentzia deusestearen alde. R.U.O.k ere alegazio-idatzia aurkeztu zuen zera esanez: Kultur Zuzendaritza Nagusiko txostenaren aurka gora jotzeko errekurtoa jarri zela eta ebatzi gabe dagoela; prozedura geldiaraztea eskatzen du, errekurtoaren ebazpena izan arte.

Gaia eztabaidatu ondoren, kontutan hartuz, errekurtoa onartu ezker, Kultur Zuzendaritza Nagusiko txostena aldekoa izan daitekela eta, ondorioz, emandako lizentziak balio osoa izan, aho batez erabaki da:

1. Lizentzia deusestzat jotzeko prozedura etetzea, aipatuko errekurtoaren ebazpena izan arte. Etendura honekin mozten da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 102.5 artikulua jartzen duen epea.

2. Erabaki honen berri ematea espedientean interesdun bezala agertzen direnei eta Nafarroako Gobernuak Kultur Zuzendaritza Nagusiari.

Pedro José Alchu sartu da.

4. EGUR-LOTEAK.

*Amezti*a parajea markatu behar diren egur loteak etxean entregatzeko aurrekontuak eskatu ziren eta hauek izan dira eskaintzak:

- Pako Altzuri SLk eskaini du tonako 32 euro gehi BEZa kobratzea.
- K.E.S.S.ek eskaini du tonako 30 euro gehi BEZa kobratzea.

Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1. Egur loteak atera eta entregatzeko lanak adjudikatzea K.E.S.S.i, tonako 30 eurotan (gehi BEZa).

2. Erabaki hau jakinaraztea esleipendunari eta Pako Altzuri SLri.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

5. KOMUNALEKO ATALEKO TXOSTENAK.

1. Idazkariak irakurri du Komunaleko Sailak eman duen txostena, “Erasun Ariztegui M^a Trinidad, Lecaroz Erasun Igon José” elkarteak Jabetza Erregistroan inskribatu duen finkari buruz (3 poligonoko 244 partzela). Txostena aldekoa da eta jakinaren gainean geratu da Udalbatza.

2. Idazkariak irakurri du gero Komunaleko Sailak eman duen txostena, J.J.U.S. eta beste batzuk Jabetza Erregistroan inskribatu duen finkari buruz (2 poligonoko 132 partzelako 1 azpiareako 1 unitatea). Txostenak dio inskripzioa ez dagoela ongi, partzela horretan ez dagoelako bordarik. Aho batez erabaki da txostena jakinaraztea U. jaunari, eskriturak eta inskripzioa aldatu behar direla azalduz.

6.ZENBAIT ESKAERA.

1. I.B.M.k idaztia aurkeztu zuen esanez, *Ameztiko* bidean brea bota zuela uztailaren 2an, 2.050 euroko kostuarekin, eta kostu hori Udalak ordaintzea edo laguntza bat ematea eskatuz. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da brea botatzearen kostua ez ordaintzea, arrazoi hauengatik:

- Udalak ez dauka baliabiderik aurrekontuan gastu horri aurre egiteko. Ez dago Nafarroako Gobernuko diru-laguntza lortzerik ere.
- Bidea konpondu eta gero eskatu da laguntza. Zuzena izango zen konpondu baino lehen eskatzea, Udalak baloratzeko bidea konpontzearen beharra eta lehentasunak. Bideak konpontzeko lehentasunak jartzea, Udalari dagokio.
- Antzeko beste kasuetan etxeetara doazen bideak konpondu dituzte jabeek, Udalak ez daukalako baliabiderik.

7. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2014ko uztailaren 14koa, nabeari teilatua moldatzeko lizentzia eman ziona J.A.ri; 2014ko uztailaren 15, 16 eta 17koak, Iturengo bestatan salmenta-postuak jartzeko baimenak eman zituztenak; 2014ko uztailaren 18koa, *Herriko Ostatuko* ordutegia handitu zuena Iturengo bestatan; 2014ko abuztuaren 5koa, *Ameztia* parajea kanpaldia egiteko baimena eman ziona M.J.A.ri; 2014ko abuztuaren 12koa, 800 Dukado Kirol Klubari baimena eman ziona, *800 Dukado* kirol proba Iturendik pasatzeko 2014ko irailaren 7an; 2014ko abuztuaren 12koa, Alkatezaren eginkizunen eskuordetzea erabaki zuena 11 eguneko mugarekin.

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Aho batez erabaki da irailaren 13an (larunbata) auzolana egitea, herri bideak garbitzeko eta bazterrak txukuntzeko.

2. Ingeleseko gela berria eraikitzeko obren egoerari buruzko informazioa eman du P.J.A.k. Ikasturtea irailaren 1ean hasiko dela kontutan hartuz, zaila ikusten da obra bukatzea egun horretarako. *Herriko Ostatuko* errentamendu kontratuak dio: etxebizitzako sarrerako toki biltegi bezala erabili ahalko duela adjudikazio-hartzaileak uztaile eta abuztuko hiletan bakarrik eta irailaren 1erako toki hura libre utzi beharko duela eta ingeleseko gelaren erabilpena eskolak



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

izango duela urte osoan. Beraz, gela eta sarrera libre utzi beharko ditu Ostatuko maisterrak irailaren 1erako. Hustutzeko laguntza behar badu, laguntzeko prest daude zinegotziek. Gela berriko obrak bukatzen direnean, *Herriko Ostatuko* biltegia berreskuratuko da.

3. Planeamendurako Arau Subsidiarioko UB 9 izeneko unitatean etxebizitza eraiki zuen F.G.A.k (3 poligonoko 112 partzela), urbanizatu eta emateko betebeharrak konplitu gabe. Udal arkitektoek —Patxi Chocarro eta María Urmeneta— txostena egin zuten, betebeharrak horiek gauzatzeko aukerak emanez eta G. jaunari jakinarazi zitzaion txosten hura. G. jaunak idatzia aurkeztu zuen txosten teknikoa ez dela zuzena esanez eta proposamen hau egin zion Udalari: UB 9ko urbanizatu eta emateko betebeharrak konplitu beharrean, 3 poligonoko 189 partzela emango lioke Udalari, autobus geltoki bat eraiki ahal izateko.

Espedientean dauden txostenak aztertu eta gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da, G. jaunaren proposamenari uko egitea arrazoi hauengatik: 189 partzela ez da toki egokia autobus geltokia jartzeko, ikasleek karretera zeharkatu beharko luketelako eta hori arriskutsua da eta, gainera, leku horretan geltokia eraikitzearen kostua handia izango zen eta Udalak ez dauka baliabiderik aurrekontuan horrelako gastuari aurre egiteko.

4. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Hezkuntza Departamentuari eskatu zaion diru-laguntza, ingelesko gela berria eraikitzeko; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; Bertiz Partzuergoko kudeatzaile berriaren agurra; Turismoko zuzendari orokorraren 201/2014 eta 202/2014 Ebazpenak, *Aurtizko Ostatua* Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatzeari buruz.

5. Abarun Sociedad Cooperativak *Aurtizko Ostatuan* egin dituen inbertsioen zerrenda aztertu da. Errentamendu kontratuak dio: *“egindako inbertsioen azalpena eta zerrenda baloratua aurkeztu beharko du Udaletxean adjudikazio-hartzaileak, Udalak oniritzia emateko. Azalpen hori horrela xehatuko da:*

- Alde batetik, 8.700 euro (BEZa barne) arte egindako inbertsioen zerrenda baloratua, fakturen kopiarekin. Gauza horien inbentarioa egingo da eta Udalaren jabetzakoak bilakatuko dira. Udalak ez du kalte-ordainik ordaindu behar haiengatik kontratua bukatzerakoan.

- Aipatu den zenbatekoaren gainetik inbertsioa egin baldin bada, horren zerrenda. Gauza horien inbentarioa egingo da ere, baina adjudikazio-hartzailearen jabetzapean geldituko dira.”

Udalaren jabetza bilakatuko diren gauzen inbentarioa egin ahal izateko, gauza horiek zehaztu beharko ditu Abarun Sociedad Cooperativak.

6. 2008 urtean karpa egin zenean, aurkeztutako laguntza-eskaerak eta Udalak hartutako erabakia irakurri dira. Aho batez erabaki da, bilera bat egitea Ibintza Kultur Taldea, Joaldunen Elkarte eta Iñauterietako Komisioarekin, gaia aztertzeko. Irailaren 30ean izango da bilera hori.

7. Liztor asiatiakoari buruz Malerrekako Mankomunitatean egin diren bileren berri eman du alkateak. Habiak kentzeko boluntarioak aurkitu behar dira.

9. HERRIAREN TXANDA.

Ez da galderarik egin.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Eta bertzerik ezean, 21:50ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.